

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko udala</i>
<p>Gaia: BERDINTASUN ZERBITZUKO BERDINTASUN KONTSEILUKO BILERA</p>		

Bileraren datuak:

Data: 2013-04-25 Tokia: Santa Klara Jauregia Ordua: 17,00-18,30

Bertaratu dira:

Enclave de ciudadanas pr Getxo: Charo De la Peña

Gizatiar: Mariví Peñaredonda

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Roda: Clara Lorenzo

Udaleko Alderdi Sozialista: Teresa García Oviedo

Alderdi Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Arantza Cabeza

Ez dira bertaratu:

Getxo Enpresa

ELA

Keltse Eigurenek bileraren hasieran azaldu du Idoia Eizmendi berdintasuneko teknikaria baja-egoeran zegoenez Batzordearen bilera apirilaren 11tik 25era atzeratu zela. Hala ere, gaur egun, baja-egoeran jarraitzen du, eta deialdi hau ez du gehiago atzeratu nahi izan, martxoaren 8ko balorazioa gehiegi atzeratuko zelako. Beraz, haren ordezkoko moduan ingurumeneko teknikaria den Arantza Cabeza arituko da, idazkari gisa.

Gai-zerrendaren lehen puntutik hasi baino lehen, Enclavek otsailaren 21eko aktan berak adierazitakoa aldatzea eskatu zuela adierazi du. Izan ere, Getxolan lekualdatzen zenez, eraikina emakumeen etxe moduan erabiltzea eskatu zuen. Ekarpen hori gehitu dugu, eta irakurrita, Enclave ados agertu da horrela idatzita

aktan jasota geratzeko. Bestalde, PSE alderdiak harrera-etxebizitzari buruzko gaia ere zerrendan sartzea eskatu zuen. Gai horri buruz arituko gara bilera honetan.

MARTXOAREN 8KO BALORAZIOA.

PSE. Interesgarritzat jo du "Emakumea eta kirola" gaia eta egindako jarduerak, beste urte batzuetan baino arrakasta handiagoa izan dutelako. Kirolarien mahai-ingurua nabarmendu du, igorritako emozio-karga handiarengatik. Gogoratu du, norbaitek, agian bere buruari planteatu gabe, familia- eta lan-bizitzak uztartzeko arazorik ez zuela izan adierazi zuela, baina planteatzean, bizitako arazoez konturatu egin zela.

Gaiaren eta jardueren balorazio positiboa egin du, eta aberasgarria eta errepikatzeko modukoa dela.

ENCLAVE. Oso interesgarria, baita Ainhoaren hitzaldia ere, emandako ikuspegiarengatik eta adierazitakoarengatik. Ibilaldiari dagokionez, jende kopuru handia, ibilbide egokia. Ibilaldiaren arrazoia identifikatzeko bereizgarriren bat falta zela nabarmendu du; baita, agian, azken manifestu bat ere. Bizkaiko Zubian jarritako puntu lila ere eskertu du. Hala ere, zuria izan beharko duela adierazi du, kolore horretakoa baita.

Eskuz-Esku. Ainhoaren hitzaldia oso interesgarria ere iruditu zitzaion. Asko aurreratu dela uste du, baina oraindik bide luzea dagoelako ibiltzeko. Udalak gaiak eta jarduerak sustatu arren, jende gutxi bildu dela nabarmendu du, eta, horren ondorioz, jende askok ez dituzte ikusten ekitaldi oso interesgarriak. Ibilaldiari dagokionez, ibilbidea ongi irudi zitzaion, baina agian beranduago izan behar zuela, jende gehiago biltzeko. Bereizgarriren baten falta ere sumatu zuen: pegatinak edo elastikoak.

Gizatiar. Balorazio positiboa ere egin du, eta ordutegiari dagokionez, egokia dela uste du, goiz egiten denez, parte hartu zuten pertsonek gero beste plan batzuk egiteko aukera zutelako.

Keltse Eigurenentzat ibilaldiaren eta mahai-inguruaren balantzea positiboa da. Zenbait gizon ere bertaratu ziren, hala ere, egia esan, gutxi ziren kirol munduarekin lotuta zeudenak. Hitzaldietan askotariko edukiez aritu dira. Bata, akademikoa izan da; bestea, bizipen pertsonalei buruzkoa gehiago, baina biak oso interesgarriak izan dira. Ibilaldiari dagokionez, bereizgarriaren falta hori ulertzen du, zenbait pertsonek turistak zirela uste izan zutelako. Bere ustez, ez zen ongi ulertu ibilaldi hori, edo ez zuten jakin ibilaldi horren esanahia adierazten. Hasieratik kirol ekintza izatea pentsatu zuten, eta Galeatik egitea. Geroago, leku ikusgaiago eta erabilgarriago batean egitea erabaki zuten. Jolas-jarduera bat zen, eta errebindikatzeko ekintza. Kirolarekin lotutako jarduera bat zen, emakumeek ekimenez egindakoa, martxoaren 8an egin zena. Bereizgarriari dagokionez, elastikoetan pentsatu zuten, baina zenbat jendek parte hartuko zuten ez zekitenez, arriskua zen eskatzea. Hori dela eta, Emakunderen txapa moreak eramatea erabaki zuten azkenean. Nahikoak ez zeudenez, gehiago eskatu zuten, baina ez ziren garaiz iritsi. Puntu lila zuri izateari dagokionez, zenbat eta eremu handiagoa pintatuta egon, irrist egiteko arriskua are handiagoa dela azaldu du. Pinturarekin erorketak gertatzeko arriskua dagoeneko adierazi zuten, zebra-bideetan aplikatzen dena bera da. Lurrak zenbait egun egon behar du lehor, eta pintatu ondoren ezinbestekoa da euririk ez egitea.

Grupo Popular. Ibilaldiaren arrazoiaren inguruan etorkizunean gauza bera gerta ez dadin, ibilaldiaren zioa martxoaren 8a izatea proposatzen du, nahiz eta ezer ez errebindikatu.

Enclave. Emakumeen lehen ibilaldia zela ulertu zen.

Keltse Eigurenek azaldu du Batzordean ez dutela hitz egin jarraitutasunari buruz. Lehen ibilaldia izena jarri zuten hain zuzen lehenengoa zelako. Hala ere, agian, azaroaren 25arekin lotu beharko litzateke ibilaldia. Partaidetza nahiko ona izan zen lehen aldiz egiten zela kontuan hartzen badugu, 80 pertsona inguruk parte hartu baitzuten. Ordutegia ibiltzera joaten diren pertsonen normalean erabiltzen dutena da: 10:00ak, eta aurretik aipatu denez, gero, beste plan batzuk egin daitezke horri esker.

Eskuz-Esku. Egindako argazkiren bat nahi duela adierazi du. Keltse Eigurenek GetxoBerrirekin kontsultatuko du, ea argazkiren bat eman diezaioketen.

GAY, LESBIANA, BISEXUAL ETA TRANSEXUALEN EGUNERAKO PROPOSAMENAK

Keltse Eigurenek adierazi du, aurten, jardueraren bat egin nahi dutela, azken urteetan Berdintasun Planaren barruan egin duten moduan. Ideiak posta elektronikora bidal daitezke, eta behin denak jasota, erabakia hartuko dute. Iaz, esaterako, mahai-inguru bat antolatu zuten, baina jasotzen duten edozein iradokizun kontuan hartuko du. Hala ere, kontuan hartu behar dugu ekainaren 28an egingo dela, eta denbora behar dutela erabakitzen dena antolatzeko.

Keltse Eigurenek hurrengo bilera noiz egingo duten galdetu die bertaratutakoei. Arautegiaren arabera, urtean sei egin behar dituzte, baina kontuan hartu behar dugu uztailean eta abuztuan, oporrak hartzen direnez, ez dela deialdirik egiten. Horrez gain, ekaina hil arazotsua izaten da elkarreterako, lan handia dutelako. Ekainaren 1ean Ahalduz Eskolaren ikasturte amaierako ekitaldia egiten dela adierazi dute, eta, aurten, Getxori dagokiola antolatzea. Beraz, lan handia izango dutela. Azkenean, hurrengo bilera ekainaren 13an¹, osteguna, egitea erabaki dute. Espero dute ordurako Idoia Eizmendik teknikaria osatuta egotea.

PSEko Teresa Garciak hartu du hitza, talde sozialistak osoko bilkurara mozio gisa eraman zuen gaia (hau da, tratu txarrak jasandako emakumeak hartzeko etxebizitza bat eskatzea) gai-zerrendan barne hartzea eskatu zuelako, azken osoko bilkuran aurkeztutako mozioa dela eta, une egokia baitzen. Içzan ere, udalaren etxebizitza bat hutsik geratu zen, eta Udaltzaingoa sei emakume babestuta dituela jakinda, aukera eta beharra zegoen etxebizitza hori haiekin betetzeko. Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko EAEko 4/2005 Legeak, 57, artikuluan, hauxe ezartzen du: "Foru- eta toki-administrazioek, beren eskumenen eremuan, etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premiei erantzuteko harrera baliabide nahikoak izango direla bermatuko dute", eta, bigarren puntuan: "20.000 biztanletik gorako udalerrri guztiek eta kopuru hori gainditzen duten mankomunitateek (eratuta daudenek edo sortuko direnek) harrera-pisuak izan behar dituzte, etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premia larriari erantzuteko". Halaber, Berdintasunerako III. Planean jasotzen diren 2013ko ekintzen barruan, Jdl1.1 ardatzean hauxe jasotzen da: "Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako babes etxea martxan jartzea; beti ere EAEko Zerbitzuen Katalogoak horrela jasotzen badu".

Alderdi Popularra. Gaiari hainbeste publizitate eman zaionez, dagoeneko ez du zentzurik: emakumeen segurtasunerako, ez da lekuaren publizitaterik egin behar, ez eta non den adierazi ere.

Horren ondoren, bertaratutako emakumeek beren ekarpenak egin dituzte. Denek adierazi dute ez dutela esan behar non egongo diren tratu txarren biktimek izan

¹ Azkenean, ekainaren 20an izango da.

diren emakumeak, emakumeen eta haien seme-alaben segurtasun-arrazoiengatik hain zuzen ere.

Keltse Eigurenek hartu du hitza. PSEko ordezkariari esan dio bere taldeak harridura handiz hartu zuela mozioa, eta, gutxienez, "desleialtzat" hartu behar duela bere jarrera, Berdintasunerako Batzorde honetan beti berdintasunez hitz egin dutelako, elkarteen eta alderdi politikoen ordezkarien bidez. Gobernu-talde moduan, bere lan-plana eta zer egingo duten jakinarazi dutela beti, eta elkarte guztiei horren berri eman dietela, Batzordea formalki sortu aurretik, eta baita sortu ondoren ere. Ez zaio zuzena iruditu Batzordeko talde bat horrela aritzea, tanto politiko bat lortzeko, eta gobernu-taldea ahultzen saiatzeko, martxoaren 6aren ondoren eginda, eta Berdintasun Planean jasotzen den ekintza bat izanda. Hori dela eta, jarrera legezkoa eta bidezkoa bada ere, desleialtzat hartzen du, mozio berean, Berdintasun Batzordean ere horri buruz aritzea eskatzen delako. Beraz, bere talde politikoari Batzordean gaiaz ere aritu behar zutela adierazi behar zion, osoko bilkurara mozio moduan eraman ordez. Hala ere, zuhurrak izan zirela eta alderdi sozialistaren jarrera ez zutela aurpegiratu. Mozioan emakumeei eta haien seme-alabei arreta osoa eskaintzen dien babes-etxe bati buruz hitz egiten da, eta zenbait zerbitzu zehazten dira: psikologikoak, sozialak eta juridikoak. Hori dena, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen barruan dago. Bestalde, aurretik, toki administrazioaren sail batek hartutako etxebizitza bat libre geratu dela eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeen babes-etxe bihurtzea egokitzat jotzen dutela adierazten da. III. Ekintza Planean hauxe jasotzen da: "tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako babes-etxe bat, EAEko Zerbitzuen Katalogoan hala jasotzen badu".

PSEko Teresak dio ez duela onartzen desleialtzat hartzea, gaiarekin bereziki sentsibilizatuta dagoen pertsonatzat duelako bere burua, eta Batzorde honetan alderdi sozialista ordezkaturik egon arren, inoiz ez duela haren kutsu politikoa erabili. Gaineratu du genero-indarkeriaren aurrean desleial agertzen ez den bitartean, ez duela onartzen kalifikatzaile hori. Bukatzeko, adierazi du ezin izan zutela Berdintasun Batzordera ekarri, ez baitzekiten udalaren eraikin bat hustuko zutenik, eta, mozioan "Berdintasun Batzordera jo" behar dutela jasotzen bada, alde batera ez dutela utzi izango dela. Gainera, udalerriko berdintasun politiketarako ezinbestekotzat hartzen du. Agian Batzordean ikusi behar izan zuten, baina udalaren eraikin bat hutsik geratuko zela jakin izan balute bakarrik.

Elena Coriak hitz egin du. Hori ez dela erabakigarria adierazi du. Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 39. artikuluan, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalak gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumen eta eginkizunen arabera, Udalei dagokie 22. artikuluan 1. atalean arautzen diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren lehen arretako gizarte-zerbitzuak hornitzea, telelaguntza zerbitzua izan ezik, hori, Eusko Jaurlaritzari baitagokio.

Legaren arabera, 22.1. artikuluan araututako lehen arretako Gizarte Zerbitzuei esker, erabiltzaileak Gizarte Zerbitzuen Sistema osora sar daitezke, eta autonomiarekin, gizarteratzearekin eta premiazko edo gizarte-babesik gabeko egoerekin zerikusia duten beharrei erantzungo diete, arrisku-egoeren prebentzioarekin zerikusia dutenei bereziki. Zerbitzu horiek, udalen gizarte-zerbitzuek hornitu eta emango dituzte, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

Lehen arretako Gizarte Zerbitzuen barruan hauxe jasotzen da:

1.9.- Ostatu-zerbitzuak: 1.9.1.- Harrera-pisua.

Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak: Etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza-zerbitzuak.

Beraz, Elena Coriak adierazi duenez, Udalak tratu txarren kasuetarako zenbait zerbitzu baditu ere, harrera-zerbitzua Foru Aldundiei dagokie, Gizarte Zerbitzuen

Legearen arabera. Udalei dagokiena harrera-pisu bat izatea da. PSOEek eskatzen zuena, beraz, Foru Aldundiei dagokie, eta "intentsitate handikoa" da, baina Gizarte Zerbitzuen Legean eta Berdintasun Legean, udalaren eskumenekoa den zerbitzu bati buruz aritzen dira, harrera-pisu bati buruz hain zuzen, eta "intentsitate baxukoa" da.

Horrez gain, urtebete daramate lekua moldatzen, eta adierazi du ez duela datu gehiagorik emango, pisua den, etxea...Esan du ez duela udalarena izan behar, eta Gizarte Zerbitzuen Legearen eta Berdintasun Legearen arauak nahastuz, arategi bat egin dutela. Intentsitate baxuko udal-zerbitzua da.

Teresari ongi iruditzen zaio, helburua edukitzea baita, baina, bere ustez, lehenago esan behar izan zuten Batzorde honetan zerbait moldatzen ari zirela.

Elenak uste du, hemen, edo emakumeen indarkeriako protokolo-zerbitzuaren erakunde arteko organoan aipatu zutela. Hala ere, ez duela komunikabideetan hedatuko edo argitaratuko adierazi du.

Teresak adierazi du informaziorik ez izateak, batzuetan, zenbait jarrera eragiten dituela, eta Elenak erantzun dio PSOEek ez duela galdetu inoiz informazio-batzordeetan lekuren bat moldatzen ari ziren.

Enclavek batzordearen aurreko bilerara jo du. Bilera horretan, Getxolanen udal eraikina emakumeentzako etxe moduan erabiltzea eskatu zuten, eta, azaldu du ez duela zentzu horretan hitz egiten, emakumeen bilerak egiteko leku moduan erabiltzeko baizik. Adierazi du, iaz, Elenak dagoeneko azaldu zuela ez zela emakumerik geratuko harrerarik gabe, eta, behar bazuten, baliabideak bilatuko zituztela. Hasierako harrera-baliabidea beteta zegoen, bai hotel batean bai beste leku batean. Hala ere, egia da baliabiderik osoenak abegi-etxeak direla.

Teresak onartu du aldi baterako harrera beti izan duela argi, baina leku bat moldatzea ez duela argi. Horregatik planteatu zuela mozioa, horren berri ez zuelako.

Maitane Nerekanek adierazi du ez duela ulertarazi nahi PSEren jarrera onartzen duela, baina batzuetan, informazio falta dela eta, neurriak hartu behar zituztela, dagoeneko hartuta daudenean eta hartzeko bidean daudenean bakarrik erantzuten duelako Udalak. Gai jakin honen kasuan, ongi iruditzen zaio egitea, baina orain arte ere ez zekitela ezer, eta beste zenbaitetan aipatu duten arren, informazio hori iragan asteartean jaso zutela.

Keltse Eigurenek azpimarratu du 2013. urteko ekintza dela, eta aipatzen diren neurriak ezarriko zituztela adierazi zutela, katalogoan esaten denaren arabera. Bere ustez, argi utzi zuten zerbitzu hori beti izan dutela beteta. Beraz, informazio falta hori ezin dute leporatu, horretan lanean ari zirela esan dutelako beti, eta ez dutela esango, noski, non egingo duten. Elenak adierazi du, agian, zuhurregiak izan nahi izateagatik leporatu diezaietela informazio falta, gai bereziki sentikorra delako. Keltsek esan dio Teresari ez dela desleialtasun pertsonala, Batzordean ez duelako bere jarrera pertsonalari buruz aipatu, baizik talde politiko baten ordezkari moduan. Beraz, talde sozialista izanda Batzorde honekin desleiala izan dena, gobernu-taldea ahultzen saiatu delako. Osoko bilkuran abstenitu zirela esan du, berdintasun-politiken gaia ez ahultzeko.

Teresak adierazi du, koherentzia horri jarraituz, mozioaren idazkian jasotzen dela Alkatetzari eskatu behar zaiola berdintasun-akordio hori Batzordera eramatea, berak, berdintasun batzordera eramatea eskatu arren. Zerbaitetan desleiala izan da, gobernu-taldeak batzordera eramaten uztean izan dela.

Alderdi Popularra. Ana Basiliok adierazi du batzorde honetara eramaten diren ideiak ez direla norberak izan ditzakeenak, batzuetan, talde politikoaren desberdinak izan

daitezkeelako. Bere ustez, lehenago aipatu behar izan zuten Batzordean, eta bere taldeari aholkatu.

Maitane Nerekanek adierazi du oinarrizkoa behintzat aipatu behar izan zutela, urtebete daramatelako lanean. Keltse Eigurenek azaldu du ekintza moduan jaso zutenez, eta bere garaian azaldu zutenez, lanean ari ziren zerbait zela argi geratu zela uste zutela.

Bestalde, PSEko Teresak adierazi du bere talde politikoari esango diola.

Gai honi buruzko iritzi guztiak emanda, Eskuz-Esku elkarteak galdetu du Getxoko udalerrian Gizon eta Emakumeen Berdintasuna sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak argitaratu diren. Keltse Eigurenek adierazi du goizean bertan sinatu duela BAOra bidaltzeko ofizioa, argitaratzeko, eta zer egunetan izango den dakitenean posta elektronikoz jakinaraziko diela. Horrez gain, aurtengo diru-laguntza zenbait alderditan desberdina izango dela adierazi du. Esatera, bi arlotan banatu dutelako.

Gayen egunerako iradokizunei dagokienez, Berdintasun sailaren, Idoia Eizmendiren eta Keltse Eigurenen helbide elektronikora bidaltzea proposatu dute.

Ana Basiliok iradokizun bat aurkeztu du datorren martxoaren 8rako: Julia Otero kazetariarekin harremanetan jartzea, bere irratsaioa Getxotik eman dezan, emakumearekin konpromiso handia duen pertsona izateaz gain, kazetari ona ere badelako, edozein dela lan egiten irratia. Entzule ugari dituela. Asmoa da beste leku batzuetan, Getxon egiten den lan handiaren berri izatea.

Eskuz-Esku elkarteak ekimen horren alde agertu da, eta uste du publizitatea egiteko modu ona dela, bere saioek entzule asko dituztelako, eta oso kazetari ona delako. Bertaratutakoan artean adierazi dute aurrekontua oso handia izan daitekeela, baina babesleak egon ohi direla horretarako: hainbat enpresa, edo saioa ematen den hotela, kostuaren zati bat beren gain har ditzaketenak. Ana Basiliok bere burua eskaini du hasierako harreman hori hasteko, mota horretako ekitaldiek denbora behar dutela antolatzeko. Baina argi utzi du proposamen bat dela, eta oraindik ez dagoela ezer erabakita.

Bestelako gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, 6ak eta erdian.